

- *Baremazioa*

<p>A.- Ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak izatea. (6,5 puntu gehienez; kontzeptu meta ezinak)</p>	<p>Neba-arreba bat edo gehiago matrikulatuta daude eskatutako ikastetxean edo hari atxikitako ikastetxeren batean.</p>	6,5 puntu
	<p>Aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean egiten du lan (puntuazio hori bateraezina da ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan lan egiteagatik ematen denarekin).</p>	5 puntu
<p>B.- Bizilekuaren edo lantokiaren gertutasuna (6 puntu gehienez; kontzeptu meta ezinak)</p>	<p>Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago ikaslearen bizilekua.</p>	6 puntu
	<p>Eskatutako ikastetxearen eragin-eremu mugakide batean dago ikaslearen bizilekua.</p>	2 puntu
	<p>Eskatutako ikastetxearen udalerrian dago ikaslearen bizilekua, baina haren eragin-eremutik eta eremu mugakideetatik kanpo.</p>	1 puntu
	<p>Ikasleak bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, baina ikastetxea kokatuta dagoen udalerritik eta eragin-eremu zein eremu mugakideetatik kanpo.</p>	0,5 puntu
	<p>Eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan dago aitaren, amaren edo legezko tutorearen lantokia (puntu horiek bateraezinak dira ikaslearen aitak, amak edo legezko tutoreak eskatu den ikastetxean edo ikastetxe atxiki batean lan egiteagatik ematen diren puntuekin).</p>	2 puntu
<p>C.- Familia-unitatearen urteko errenta (3 puntu gehienez; kontzeptu metagarriak)</p>	<p>2020ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak ez baditu 13.300,00 euroak gainditzen.</p>	2 puntu
	<p>2020ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren baturak zenbateko hori gainditzen badu.</p>	0 puntu
	<p>Horrez gain, aurreko kasuetan, 0,25 puntu gehituko dira eskatzailea ez den seme-alaba adingabe bakoitzeko.</p>	0,25 puntu

D.- Familia ugariko kide izatea.	Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik.	1 puntu
	Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik.	1,5 puntu
E.- Erditze anizkoitza.	Ikaslea erditze anizkoitzean jaio delako.	1 puntu
F.- Guraso bakarreko familia izatea.	Ikaslea guraso bakarreko familia batekoa izateagatik.	1 puntu
G.- Kooperatiba-bazkide izatea.	Familiako unitateko kideren bat eskolako kooperatiba-bazkide izateagatik.	0,5 puntu
H.- OOGren ustez garrantzitsuak diren bestelako arrazoiak. (1 puntu gehienez)		1 puntu
I.- Beste batzuk		
Desgaitasuna (2 puntu gehienez)	Ikasle eskatzailearena.	2 puntu
	Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo anai-arrebetako batena.	1 puntu
Familia-harreraren egoera.	Ikasle eskatzailearen familia-harrera egoeragatik.	1 puntu
Genero-indarkeriaren biktima izatea.	Ikasleak, aitak, amak edo legezko tutoreak genero-indarkeriaren biktima izateagatik.	1 puntu
Terrorismoaren biktima izatea.	Ikasleak, aitak, amak edo legezko tutoreak terrorismoaren biktima izateagatik.	1 puntu

Baremoaren atalen bat egiaztatzeko dokumentazioa ez ekartzeak esan nahi du atal horren puntuazioari uko egiten zaiola.